

DENBORA HISTORIKOA

Historiak gure iragana eta giza espezieko ordezkariak bere agerpenetik Lur planetan egin dituzten gertaerarik garrantzitsuenak erakusten dizkigu, beren bilakaera eta jarraitu dioten garapena ulertzen saiatuz.

Historian zenbait etapa edo aro bereizten dira. Etapa horiek, denbora historikoan egiten diren banaketak eta gizakion bizitzan aldaketa garrantzitsuak eragin dituen gertakariak dira.

Gure Historiaren aroak Jesu Kristoren jaiotzaren urtetik zenbatzen hasten dira (1.urtea). Une hura baino lehen gertatutakoa **Kristo aurretik** gertatu zela esaten dugu, eta **K.a.** laburdura erabiliz adierazten dugu. Aldiz, une haren ondoren gertatutakoa **Kristo ondoren** gertatu zela esaten dugu, eta **K.o.** erabiliz adierazten dugu.

Horregatik, bere jaiotza gure Historiaren lehenengo urtea moduan hartzen baldin badugu honekin topatuko gara:

- I mendea: 1urtetik 100 urtera arte
- II mendea: 101 urtetik 200 urtera arte

Kontutan izan behar da:

- Mendeak erromatar zenbakiak erabiliz idazten direla.
- Jesu Kristo jaio baino lehenengo urteak eta mendeak alderantziz zenbatzen direla, hau da, beheranzko ordenan.
- Kristo aurretik gertatu zela esateko K.a. laburdura erabiltzen dugula eta Kristo ondoren gertatu zela esateko, K.o edo laburdurarik gabe adierazten dugula.
- Edozein data zein menderi dagokion jakin ahal izateko, ehunekoei unitate bat besterik ez diozu gehitu behar, mende bukaerako azken urtea izan ezik, kasu honetan urtea zati 100 egiten da eta mendearen zenbakia zuzenean ematen digula. Adibidez:

711 urtea = ehunekoak 7 + 1 = VIII mendea

1492 urtea = ehunekoak 14 + 1 = XV mendea

2000 urtea = $2000 : 100 = 20$, XX mendea




► Zein mendeari dagokio urte bakoitza? Kalkulatu

415 urtea	→	_____ mendea
600 urtea	→	_____ mendea
2020 urtea	→	_____ mendea
1982 urtea	→	_____ mendea

► Ordenatu data hauek, zaharrenetik berrienera.

K.o. 33 K.a. 750 K.a. 25 K.o. 97 K.o. 1690 K.o. 12



► Ezetz asmatu noizkoak diren gertaera hauek K.a edo K.o? Aukeratu

	ka	ko
Dinosauroek Lur planetan bizi		
Ilargira egindako lehenengo bidaia		
Amerika aurkitu		
Faraoiek Egiptoko piramideak eraikitzen dituzte		
Suaren aurkikuntza		
Trenbidea		
Alejandro Magnoren jaiotza		
Erromatar Inperioaren amaiera		
Frantziako iraultza		
Espainiaren sarrera Europar Batasunean		
Santimamiñe kobazuloetako labar-pinturak		